

AURKEZPENA

Hazten goazen heinean, gauzak aldatzen joaten dira eta horrekin batera, gure bizimoduan ezinbestekoa da zenbait aldaketa nahiz aurrerakuntza egitea. Guk gizarteari onura eskaini nahi diogunez, “Aterkeasy” zerbitzua jarriko dugu biztanleen eskura.

Proiektu hau, Urretxu-Zumarraga ikastolako ikasle garen L.A.M taldeak gauzatu dugu: Nerea Espinosa, Marina González, Luken Zufiaurre, Anne Pascual eta Elene Ocariz.

Gure zerbitzua modu erraz batean definitzeko, aterki alokairu bat deritzoko dugu, zerbitzu honen erabilera jada Donostiako Dbizi zerbitzuarekin du antza. Gure zerbitzuari hasiera Donostian emango diogu. Hiri osoko hainbat kale-argietan aterki-puntuak jarriko ditugu, gure bezeroek edozein momentutan guardasol bat izan dezaten eskuragarri. Beraz, bezeroek nahi dutenean edozein aterki-puntuetatik aterki bat hartzeko aukera izango dute, era berean, edozein unetan aterki hori gertuen edo haientzat erosoena den aterki-puntuari utzi ahal izango dute.

Gure ideiak egunerokotasunean gerta litekeen arazo bat ekiditea lortuko du: eguraldi txarra dagoen kasuetan aterki bat eskura edukitzea. Adibidez, eguzkitsua dirudien egun batean euria hasi eta soinean aterkirik ez izatea behin baino gehiagotan gertatu zaigu guztioi, beraz, bustitzea ekiditeko, gure zerbitzua erabili ahalko duzu. Zerbitzuaren izenak dioenez “Aterki” eta “Easy”, esan bezala, norberaren egunerokotasuna erraztea nahi dugu eta gure bezeroek erabilgarri aurki dezaten; hori baita gure proiektuaren helburua.

Idea hau kafetegi batean geunden bitartean bururatu zitzaigun: bertan bero-bero geunden, kafe bat hartzen, baina bat-batean sekulako euria hasi zen eta gutako inork ez zuen aterkirik soinean, beraz honi konponbide bat aurkitzen saiatu ginen. Horrela jaio zen gure zerbitzuaren ideia.




aterkeasy